otsaila | martxoa
february | march
20

# the balde

0€

nor da tipo hau?
who is this guy?



# 20





## the balde

**marzelo zelaieta 75**
**13. bulegoa**
**31014 iruñea**
**t. +34 948 12.19 76**

**kristobaldegi 14**
**20014 loiola donostia**
**t. +34 943 44 44 22**

**info@thebalde.net**

**publi@thebalde.net**
**m. +34 639 20 80 22**

**www.thebalde.net**

**argitaratzailea / publisher:** eragin. komunikazioa eragin sll
**editore / editor:** iñigo martinez
**zuzendaria / director:** koldo almandoz
**zuzendari komertziala eta publizitatea / comercial director & publicity:** idoia artxanko
**publizitatea / publicity:** eduardo pinillos
**talde eragilea / promotors:** koldo almandoz, martin etxauri, unai abarzuza, txuma vazquez, iñigo martinez, idoia artxanko.
**diseinua / design:** martin etxauri, unai abarzuza, sonia beroiz, juan luis napal, maku oruezabal, igor astigarraga, angel burgaña, ekaitz auzmendi, allende arnaiz, berta osés, peru izeta.
**itzulpenak / translations:** smiley, amaia orella .
**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:** harkaitz cano, uxeta labrit, angel burgaña, arkaitz billar, allende arnaiz, victor lenore, igor etxabe, iñigo martinez.
**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:** peru izeta, dropezframes.tv, allende arnaiz, igor etxabe.
**ale honetako komikia / comic this issue:** jon manzisidor
**ale honetako harpidetza orria / subscription page:** pintx

**inprimategia / printed at:** espacegrafic
**lege gordailua / legal:** na-3244/01

www.creativecommons.org



lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:
imaginative, provocative and interesting works? send them to:
**info@thebalde.net**

irudia / image: txo!?

MODORRRA (Martxoak 5-6 Bilbo)

Jaialdiaren izenari erreparatuta, eta gezurra dirudien arren, fashionista erremerrenek ere maite duten jaialdia da Modorrra. Beste berrikuntzen artean, diseinatzaile berri eta modelu ez profesional onenari sariak barneratu dituzte aurtengo programan. Pasarelak, merkatuak, musika eta festak. Zalantzarik ez izan...Modorrrizatu zaitez!

www.modorrra.org

MODORRRA (March 5-6 Bilbao)

Reading the name of the festival is difficult to believe, but even fashionists that pronounce R as G love this festival. Among the innovations, the prize for the best emerging designer and for the best non professional model. Don´t doubt it. Became a Modorrrist!

www.modorrra.org

KOKEIN

Taldeak ¨talde¨ direnean ez dute urtero diskorik atera behar euren izena gure ahotan izateko. Taldeak ¨talde¨ direnean, irrati top zerrendetan baino kontzertu agendetan izendatzen dizkigute. Eta sortu zirenetik egin dituzten kilometroak ikusita Kokein ¨talde¨ bat dela baieztatu dezakegu. Euren Lotuta egon arren diskoa aurkezten,...otsailaren 25ean Getariako Ketarrin...

www.kokein.com












THE FASHION FESTIVAL WITH THE 3 R-S IS BACK

KOKEIN

When a band is a real "band" they don't need to publish a record every year to keep talking about them. When a band is a real "band" we hear their name mentioned in concert schedules instead of in radio top lists. If we take a look at all the kilometers they have traveled through since they began, we can consider Kokein a real band. Their album "Lotuta egon arren" is going to be showed on … February 25 in Ketarri, Getaria.

www.kokein.com

ANTONIOREN ANIMAZIO BITXIAK.

Lerro bakarra nahikoa da istorio bat kontatzeko. Lerro xume baten aldea besterik ez dago ezer eta guztiaren artean. Lerro soil batek mundu oso bat marrazten du. Lerro, marra, arrasto, zirriborro eta hutsuneen teatroan edozer antzeztu daiteke. Esandako guztia egia dela jabetzeko bisitatu ezazue Antonio.

www.queridoantonio.com

ANTONIO'S SPECIAL ANIMATIONS.

Just one line is enough to tell a story. A simple line can point out the difference between nothing and everything. A mere line draws an entire world. In the theatre of lines, stripes, rough drafts and spaces, anything can be performed. In order to confirm what it is here said, visit:

www.queridoantonio.com



GURE ANTONIO MAITEA





ERROBOT BATEKIN MAITEMINDU NINTZEN.

Txekiarretik datorkigu ¨robot¨ hitza. Eta berez, hitzaren esanahia esklabo da. Errobotak gure esklabo izateko jaio ziren baina egun argi dago egoerari buelta eman diotela. Gizakiok ez ginateke ezer egunerokotasunean ezinbestekoak egin zaizkigun telefono, ordenadore, epilady, telebista, aulki elektriko eta frigorifikorik gabe. Aipatutakoekin ezkonduak gauden arren, guk beste hauek maite ditugu:

www.mizio-s.hp.infoseek.co.jp/r-lookall-26.html

www.nemomatic.com

I FALLED IN LOVE WITH A ROBOT.

The word "robot" comes from Czech and its original meaning is "slave". Robots were born to be our slaves but it is clear they have turned things upside down. Human beings would be lost without a telephone, an epilady, a TV, an electric chair or a refrigerator. Even though we are married to the mentioned electric appliance, we prefer these:

www.mizio-s.hp.infoseek.
.co.jp/r-lookall-26.html

www.nemomatic.com




THE SPIRIT-EN AITA

Will Eisner zendu da. Komiki munduko Eisner sariei izena eman zienak 1917an jaio zen AEBtan eta hari zor diogu nobela grafikoa kontzeptua. Superheroien sinpletasuna gainditu eta kritika soziala eta barne mundu aberats bat islatzen zituen gidoi landu eta inteligenteetan. Bizitza ez da betiko, baina bizitza batetan egindakoak izan daitezke. Eisner-en komikiak adibide.

www.willeisner.com

THE FATHER OF THE SPIRIT

Will Eisner has passed away. The one that gave the name to Eisner Comic Award was born in the USA in 1917 and created the "graphic novel" concept. His smart and elaborated scripts displayed a world in which the simplicity of superheroes was overcome and where social criticism and an inside world were showed. Life doesn't last forever, but what you do in a life does. And so do Eisner's comics.

www.willeisner.com

## HIZKIEN ZOOLOGIKOKO ANIMALIEK EZ DUTE DESAGERTZEKO ARRISKURIK



ALFABETO ANIMALIA

Hitzak eta hizkiak bezain beste irakurketa izan ditzakete irudiek. Hori aldarrikatzen dugu behin eta berriro the balden. Hitzak irudi bihurtzen dira eta irudiak hitz… eta horren adibide eder eta xumea web orri hau. 5 eta 105 urte artekoentzat aprosa eta gozagarria.

www.bemboszoo.com

ANIMAL ALPHABET

Images can be read just like words and letters. This is what we proclaim in TheBalde again and again. Words turn into images and these into words. This simple web page is an example of this. It is quite adequate for people from 5 to 105.

www.bemboszoo.com


ENTZUN! aldizkariak EUSKAL BIDEOKLIPEN BILDUMA BAT DVDa aurkezten du:
16 bideoklip (Gari, Kuraia, Ruper Ordorika, La Buena Vida, Su ta Gar, Señor No, Atom Rhumba, Kudai, Mermaid, Doctor Deseo, Inoren Ero Ni, Audience, Tanta, Neubat, Flyin´ Freak eta Afrika)
+ 2 bonus track (Materia eta Dropezframes+Dj Kreator)
Eskuratu DVDa eta ENTZUN!en urtebeteko harpidetza soilik 15 eurotan!
948 121976
entzun@entzun.com
www.entzun.com
ENTZUN!
EUSKAL BIDEOKLIPEN BILDUMA BAT
GARI
ATOM RHUMBA
KURAIA
RUPER ORDORIKA
SU TA GAR
DOCTOR DESEO
SEÑOR NO
LA BUENA VIDA
AFRIKA
MERMAID
INOREN ERO NI
FLYIN' FREAK
NEUBAT
KUDAI
AUDIENCE
TANTA
MATERIA (zuzenean)
DROPEZFRAMES + DJ KREATOR (video jockey saioa)
WWW.ENTZUN.COM
www.entzun.com jada abian www.entzun.com jada abian www.entzun.com jada abian


AUSARTA DISEINATZAILE GAZTEEN PASAGELA
MODORRRA
ENSANCHEKO MERKATUAN
MARTXOAK 5 eta 6an
BILBAO
WWW.MODORRRA.ORG
AILANTO
AMAYA ARZUAGA
ANGELA ARREGUI
CARLOS DÍEZ DÍEZ
ION FIZ
J+G
MARTA TERÁN
MERCEDES DE MIGUEL
MIRIAM OCÁRIZ
NKN FRIK
ELISA AMANN
... eta zu





# MIYAKE ON THE WEB CLOSET



### ISSEY MIYAKE INTERNETEN

Moshi moshi.Japoniarraren udaberriko bildumari bistadizo bat bota diogu. Sortzaile honen jantziak gustatzen zaizkigu, nahiz eta gure thebaldeko munduan nekez jantziko dugu japoniarraren jantzi sofistikaturik. Baina jantzi horiek bere web-gunean nola aurkezten dituen gustatu zaigu.

www.isseymiyake.com

### ISSEY MIYAKE ON THE WEB

Moshi moshi. We just took a look at the spring collection of the Japanese. We like his clothes although we, in our world of TheBalde, would never wear those sophisticated clothes. However, we like the way he shows them in his web page.

www.isseymiyake.com



### FILM LABURRAK

Laburmetraia, bere baitan zine genero bat da. Denboran luzatzen ez diren istorioak ez dute zergatik txikiagoak izan behar. Askotan izaten dugu laburmetraien berri, baina non ikus ditzakegu? Ez galdu, Euskal Herriko 23 herritan zehar Topaguneak datozen otsail eta martxorako antolatu duen laburmetrai zirkuitua. Erakutsiko diren filmak: El Salto de Beamon, Amnesiak, Ostertz, Lepokoa eta Amuak.

www.topagunea.org

### SHORT MOVIES

Short movies are a genre in their own. Stories that don´t need to be long are not necessarily smaller. Where can we see those short movies everybody is talking about? Don´t miss the opportunity Topagunea is giving us. They have organized a short movie tour around 23 towns in the Basque Country during february and march. Films that are showing in this tour: El Salto de Beamon, Amnesiak, Ostertz, Lepokoa eta Amuak.

www.topagunea.org

# NOVA: EUROPA GALAXIAKO PLANETARIK AKTIBOENA




### NOVA PLANETA

Radio Nova, egun, Europa mailan egiten den irrati musikalaren ¨gurua¨ da. Formatuen aniztasuna, aurreiritzi eza eta esperimentazio grina dira adierazgarri nagusiak. Irratiaz gain, disko zigilu, ekoizpen artistiko ezberdinak eta aldizkari eder bat argitaratzen dute. Parisera txangoa egitekotan bazabiltza ezinbestekoa planeta hau bisitatzea.

www.novaplanet.com

### NOVA PLANET

Nowadays, Radio Nova is the ¨guru¨ of music radios in Europe. Different formats, lack of prejudices and a will to experiment are the principal characteristics of Nova. Apart from the radio, they run a music label, they produce different artistic projects and publish a superb magazine. If you´re planning a trip to Paris don´t forget to check out this planet.

www.novaplanet.com


xalem
megadenda
xalbador


ESTAFETA 76, IRUÑEA
LA MOREA, IRUÑEA
MAYOR 15, DONOSTIA
URBIL. USURBIL
LA SALIE 24, BAIONA
RDGZ. ARIAS 27, BILBO
LACRUZ 13, BILBO
MAX CENTER. BARAKALDO
PRADO 5, GASTEIZ
kukuxumusu
Argazkia: Luis Azanza / Monster: Dhanyelle Gozni / © Kukuxumusu
kukuxumusu.com


golem LA MOREA 12_areto
golem BAIONA 06_areto
golem YAMAGUCHI 05_areto
golem LOS LLANOS 03_areto
golem
goi-mailako zinea!
EROSI TELEFONOZ ZURE SARRERAK
948 222 333
www.golem.es
EROSI ORDENAGAILUZ ZURE SARRERAK




# the balde party
# 4 us 4 u

Laugarren urtez Durangoko Atxo Fun Fun tabernan ospatu genuen gure urtebetetzea. Urtero lez, gure partyen soinu banda Zarautzko paparazzi surfer handiena den Makala Dj-k jarri zuen. Eta harekin, jo ta beat Raslaren efektu eta asmakizunak, Trebiñoren okarina eta kanta isilak, Dropezframez hirukotearen irudi orgia amaitezina, Ainararen futbolari kuttunenaren orrazkera sexya, Mojito King-en dantzak, Etxarriko ilehoriaren bogalooo gerria, the balde partyetan fijoak diren Oihuka workerrak, bere etsaiak lagunak bai liran maite dituen kantaria eta beste hamaika lagun izan zen bertan drope-shaka-funky-beat amaigabean, okinek euren banaketa egiten hasten diren ordua iritsi arte.
Ez duzuela tutik ulertu... ba badakizue, datorren urtean etorri 5. urteurren the balde party-ra!

Once again, we celebrated our 4th birthday party at Atxo Fun Fun in Durango. And once again the biggest Paparazzi surfer in Zarautz, DJ Makala, signed in with the soundtrack to the whole shebang. With him, the pump and beat effects by Rasla, silent singing and ocarina sounds from Trebiño, the eternal image orgy by Dropezframes, the sexy hairdressing of Ainara´s favourite football player, the Mojito King dances, Etxarri´s blonde bogaloo hips, the "always there" Oihuka workers, the singer that loves his enemies as if they were his friends and many others were there endlessly drope-shaka-funky-beating... until they crossed the milkman's path as they stumbled home at the break of dawn...
You haven't a notion of what I'm on about? Shit. Well, only one solution to that, isn't there? Get your arse on down to the 5th the balde birthday party!!!




ERAGIN.COM
WHO STOLE MY CAMERA? DESIGN
diseinu grafikoa, internet & argitarapenak • info@eragin.com


POLOLOAK
Poxpoliñen lurriña
PATXI GALLEGO
BALENTIAK
1
PATXI
GALLEGO


animac
Animac
> 9a mostra internacional
de cinema d'animació
> Lleida, del 24 al 27 de febrer
> Teatre Principal
005
Generalitat de Catalunya
Institut Català
de les Indústries Culturals
Generalitat de Catalunya
Departament de Comerç,
Turisme i Consum
Direcció General de Turisme
TURISME DE LLEIDA
smuack,lleida!
Ajuntament de Lleida



## no comment

argazkia / shot: txo!? • getxo



## kometa argazkiak

**En el cielo no habrá miradas indiferentes.**
**Santa Teresa de Jesús.**

Kometa batetaz baliaturik zerutik ateratako argazkien inguruan testu bat idatzi behar nuela jabetu nintzenean aukera ugari zegoela pentsatu nuen. Aukera poetikoak arrapaladan etorri zitzaizkidan burura. Zerua. Begiak. Oihala. Haizea. Hari batetik zintzilikaturiko instant-a,... baina argazki horiek nola gauzatzen diren, aukera teknikoa azaltzea ere ezinbestekos iruditu zitzaidan. Peru Izetak kartoi eta plastikozko kamara horietako batetan berak asmatutako tenporizadore bat jarri eta kamara zein modutan aireratu eta gidatzen duen argitzea ezinbestekoa zen. Baina nola otu zitzaion kometa batetan argazki kamara bat jartzea? Noiz hasi zen? Bai, asmatu duzue, aukera historikoa. Eta aukera honen barnean adibidez Arhur Batut frantsesa aipatu beharko genuke... Eta bat batean hitzak alperrik galtzen nenbilela konturatu nintzen. Zertarako irudiei tokia lapurtu? Hemen nabarmentzen dugun web gunean topatuko dituzue aipatutakoen inguruan argibide eta erantzunak. Santa Teresa de Jesusek esandakoarekin nahikoa dela jabetu eta hitzen iturria itxi ostean kometaren hariei jarraituaz zerurantz igoko ditugu gure begiak.

**http://www.euskalnet.net/peru.izeta/cometa**

## kite aerial photography

**En el cielo no habrá miradas indiferentes.**
**Santa Teresa de Jesús.**

When I realized I had to write a text about aerial photographs taken from a kite, I thought there were many possibilities. The poetic aspect hastily came to my mind: the sky, the eyes, the cloth, the wind, an instant hanging by a thread. However, it was absolutely necessary to make clear how these photographs get accomplished, the technical aspect. It was entirely essential to explain how Peru Izeta placed a timer in a camera made of cardboard and paper, attached it to the kite, blew it away in the wind and guided it. But how did this come to his mind? When did he start? Yes, you are right; that is part of the historical aspect. We must make a reference to the French Arhur Batut… I suddenly realized I was using words in vain. Shouldn't images speak for themselves? There are answers and information to the facts I mentioned on the web page below. Once we understand the words of Santa Teresa de Jesus and stop the flow of words, we will follow the thread of the kite and place our up in the sky.

**http://www.euskalnet.net/peru.izeta/cometa**

testua / by: ????
irudiak / images: peru izeta

testua / by: **uxeta labrit**
argazkiak / shots: **peru izeta**



# la sombra del viento.

carlos ruiz zafón. planeta

Kalitatezko literatura eta best seller popularra uztartu ditu Carlos Ruiz Zafónek nobela honetan. Istorioak harrapatzen du. Abileziaz idatzia dago, artifiziorik gabe baina aberastasunez eta istorioa egoera eta irudi erakargarriz betea dago. Europan arrakastatsua izan da eta honezkero 42. edizioan doa. Planetakoek, azalean, idazlearen izena liburuaren izenburua baino askoz handiagoa jarri dute. Bildumaren diseinu honek argi uzten du sail honetan behintzat, literatur izarrak fabrikatzeko ahaleginean jarraitzen duela argitaletxe galaktikoak.

Carlos Ruiz Zafón has combined both high quality literature and a popular best seller in his last novel. The story captures the reader. It is skillfully written and full of attractive situations and images. It has been very successful in Europe and it has reached its 42nd edition. In the cover, the publishing house has written the name of the writer much bigger than the title. This makes clear that this galactic publishing house keeps on trying to produce literature stars.




# habeko mik; euskal komiki ahalegina.

juan manuel díaz de guereñu.
astiberri/deustuko unibertsitatea

Aspaldikoa egiten zaigu Eusko Jaurlaritzako HABE-k (Helduentzako Alfabetatze-Berreuskalduntzerako Erakundeak) sortutako Habeko Mik aldizkaria. Helduentzako material pedagogiko gisa ez ezik, euskal komikia bultzatzeko sortu zen. Urte askoren buruan liburu hau datorkigu orduan eginiko ahalegin eta lorpenak errepasatu eta biltzeko gogoz eta, zergatik ez, komikiaren historian merezi duen lekua emateko asmoz. Datuz eta pasadizoz beteta, irakurketa eramangarria dauka euskal komikiaren historiaren zati garrantzitsua biltzen duen liburu honek.

The “Habeko Mik” magazine that HABE, an institution which belongs to the Basque Government, once created is quite old. It was produced not only as pedagogic material for adults but also as a way to foster the Basque comic. Many years later, this book is willing to review the effort and achievements that it once made and to put comic in the place it deserves within the history of comic. The book, which contains an important part of this history, is full of data and anecdotes. Besides, it is easy to read.




testua / by: the balde

paperpapers




# euskal herria eta festa

juan antonio urbeltz / santiago yaniz.
elkarlanean

Liburuaren azalean argi azaltzen da honokoa ez dela argazki ederrez eta testu folkloriko-kostunbristaz osatutako liburu hutsal horietako bat. Analisiaren oinarria hala ere kutsu antropologiko eta etnologikoa duten festetan datza. Egun bizi dugun festen globalizazioari aipamen sakonagoa eskertuko genuke, baina ziurrenik ez da liburu honen helburua. Hala ere gure festa, inauteria eta kontzeptu honen inguruan ditugun hainbat axioma eta mitoekin haustura eskaintzen du liburuak. Aipatutako azalari erreparatzea besterik ez dago. Txapela, betiko txapel gorria, eta txapel gainean, brodaturik bestelako buruko edo ¨kaputxa¨.

The cover of the book explains that it is not one of those trifling books full of stunning photographs and traditional texts. However, the foundation of the analysis is based on anthropological and ethnological fiestas. We would be grateful for a deeper remark on the globalization of the fiestas we nowadays live, but probably this is not the aim of the book. Nevertheless, it presents the break with some of the axioms and myths we often relate to the concepts of fiesta and carnival. You just have to take notice of the cover: A traditional red Basque beret and another type of cap or hat over it.




# asian bondage.

steven speliotis. goliath

Soka luzeak emakume asiarren gorputzetan loturik. Gure desio erotiko ezkutuetako batzuk zuri beltzezko argazkietan gauzaturik. Japoniarrek mendeak daramatzate jarduera honen alderdi estetiko, erotiko eta artistikoa garatzen. Lotura ezberdinak eta sokak eta gorputz biluziek sortzen dituzten koreografiak. Dominatu edo dominatua izan..lotu edo lotuta sentitu...nork ez du horrelakoekin gozatzen? Gu behintzat, Goliath argitaletxeak (www.goliathbooks.com) argitaratutako liburu honek infernuko sauna baino beroago jartzen gaitu.

There are long ropes all around Asian women’s bodies. Some of our erotic desires are accomplished in black and white photographs. The Japanese have been developing the aesthetic, erotic and artistic aspect of this activity for centuries: different types of knots and the choreographies that the rope and the naked bodies create. To dominate or to be dominated, to tie or to feel tied… who doesn’t enjoy this kind of things? At least, thanks to the Goliath publishing house (www.goliathbooks.com) we get hotter than a sauna in hell.



# begiak mintzo eye talk

## “BEGIA, EGIA” DIO ESAERA ZAHARRAK “EYES, NO LIES” THE OLD ADAGE GOES

testua / by: **harkaitz cano**

**1/** Eta nire buruari galdetzen diot, zergatik suertatuko ote zaigun askoz ere errazagoa begi marroidun bati gezurra esatea, begi urdin gardenak dituen norbaiti gezurra esatea baino. Begi marroidunari begira, tunel ilun baten erdian sentitzen garelako, akaso, eta iluntasuna koartada erosoa delako gezurtiarentzat ihes egiteko, harrapatua ez izateko? Begiurdinak komisaldegiko sabaitik zintzilik dauden argiak piztuta dituelako etengabe?
Kaoba koloreko idazmahaiak eta hormetan dauden unibertsitate diploma zaharkituetako marko ilunak dira begirada honen habitat naturala. Begi marroi hauen jabea moluskuen mundutik gertu dago, bildua dago bere baitara, marraskiloa bailitzan. Esnatzen garenean oraindik hor dagoen dinosauru lasaia da. Begiratzeko egindako begiak dira, begiraleak, eta ez begiratuak izatekoak. Voyeur begiak dira, inondik ere, zurrupatzaileak: marraskiloaren oskoleko espiralak bezala, irentsi egiten dute ikusitakoa. Zerbait iluna eta gordea babesten dute eta ez dute askatu nahi. Begirada hori ezagutzen saiatu arren, inoiz ez gara zulo beltz horretan dagoena ikustera ailegatuko.

**1/** And I ask myself why it’s always much easier for us to lie to brown eyes than it is for us to lie to somebody with clear blue eyes. Maybe it’s because when we are looking into brown eyes, we feel as if we are in the middle of a dark tunnel, and a liar can easily escape in the comfortable alibi offered by darkness. So as not to get caught perhaps? Because blue eyes are constantly lit by the lights hanging from the ceiling in an interrogation room?
The mahogany coloured writing desk and the aged frames of the university diplomas hanging on the walls are the natural habitat of the dark eye. The owner of those dark eyes is quite close to the world of molluscs, they close in on themselves, as if they were a snail. When we wake up, the dinosaur there is still calm. They’re eyes that were made to stare, onlookers not to be looked upon. They are the eyes of a voyeur... not a chance... they suck and feast: just like the spiral curves of a snail’s shell, they gulp down everything they see. They guard something dark and hidden and they do not want to set it free. Even though you may try to get behind that look, we never get to see just exactly what it is there in that black hole.



**2/** Mendiko errekarriak hemen. Eskuin aldean, ke gorria bezala goraka doazen zainak: ke gorria begietan arkeologia egina. Rolling Stone begiak, gastatuak, higatuak, uretatik sartu-irten asko egindakoak. Norbaitek erreka ertzetik hartu eta uretan bat-bi-hiru aldiz jauziarazten du errekarri zapal, gastatua, forma hori eman arte.
Marx anaiek Go West filmean lokomotora martxan mantentzeko treneko bagoietako egurrezko horma eta eserleku guztiak txikitzen zituzten, galdaran erretzeko egurra izango bazuten. Begi honek ere horixe egin du: bere burua salbatzeko, premiazkoa ez zuen ekipaia guztia erretzen joan da urteen poderioz. Horregatik eraztun itxurako zanga horiek, lubaki huts horiek begiaren erretagoardian.
**3/** "Kontuz begi urdinekin!", gaztigu horrekin amaitzen zuen Tristan Tzarak bere poema dadaistetako bat.
Itzul gaitezen, ordea, gezurraren kontura. Zergatik da hain zaila begiurdin bati gezurra esatea? Ispilua delako begiaren gardena guretzat? Itsaso bareari eta zeru azulari ezin zaiolako gezurrik esan?
Gure lagun ateo batek elizatik ezkondu ahal izateko bataiatzea erabaki du berriki. Aita haserretu egin zaio: "Hainbeste urte borrokan eta orain bataiatu egin behar duk?". Bere erantzuna: "Etsaia horaila bada eta begi urdinak baditu...". Eta aitak: "Litekeena da nazia izatea: afusilatu egin beharko litzateke". Kontua da, begiurdina ikusi orduko geratu zela gure laguna bataiatuta. Hori aita guztiek ulertu behar lukete.
Begi urdin hauen jabeak ondo asko daki norbait begira duela. Nola ez du bada norbait begira izango, Los Angeleseko etxe unifamiliarretako piszina bi izanda aurpegian? Oina bertan sartu eta hondoa ukituko dugula uste dugu, baina ilusio optiko bat da, tranpa hutsa: berehala dugu ura lepotik gora. Joseba Sarrionandiari kasu egin behar, halakoetan: "Zure begietako irla beltzera,/ igerian ailegatzerik ez dudanez/ zure begietako zurian / poemak ikazten ditut"
**4/** Leherketarenak. Erradioaktiboak. Hiroshima estiloko begiak. Tximistak jo berri duen tximistorratza. Espermatozoide kabestroak tupustean jo berri duen obulua. Sorkuntzarako indarra, puri-purian. Begirada lehergarria duenak, lehergarria behar izaera ere. Van Goghek nini hauen tintontzian pintzela sartuko luke begiok eskura izango balitu, gero eguzkiloreak pintatzeko. Hobe Jupiterren sateliteen itxurako begi hauen jabe sutsuekin ez eztabaidatzea. "Hemen nago, horrelakoa naiz, ez dizut ezkutatzen nire akatsik, ez dut nire bertuteak ezkutatzen zertan ibili", esaten digula dirudi.
Zalantza bat baino gehiago sortzen da, hala ere: non dago Hiroshima estiloko begi hauen gainean lehergailua bota zuen hegazkin pilotua? Ze koloretako begiak zituen? Eta batez ere: itxi al zuen begietarik bat, bederen, lehergailua zehazki zein puntutan erortzen utzi behar zuen hobeto kalkulatzeko?

**2/** Smooth stones from a mountain river here. On the right, veins that shoot up like red smoke: red smoke like archaeology in the eyes. Rolling Stone eyes, spent, worn, dipped in and out of water many times. Someone takes them on the river bank and skips them across the water two or three times, until they get that smooth river finish.
In Go West, the Marx brothers chop up all the wooden walls and furniture in all the carriages on a train to keep the steam engine firing. These eyes do exactly the same thing: to save themselves, over the years they have burnt up all of the unnecessary baggage they were carrying. That's where you get ringed-looking gannets, the trenches in the eyes' rearguard.
**3/** "Be wary of blue eyes!" was the message Tristan Tzara used to finish one of his dadaist poems.
We digress. Let us return to the subject of lies. Why is it so difficult to lie to a pair of blue eyes? Is the clearness of the eye a mirror to us all? Can you not lie to the calm ocean and the blue sky?
An atheist friend of ours has recently decided to get baptised so as to be able to marry in a church. His father got mad on him: "You resisted and fought for so many years and now you want to be baptised?". The answer: "But if the enemy is blonde and has blue eyes…" The father once again: "More than likely they're a fascist: should be taken out and shot." The truth is, however, that when our friend first saw those blue eyes, they were baptised already. All fathers should understand that.
The owner of a pair of blue eyes knows too well they are being looked at. Sure how wouldn't they have somebody always staring at them, with their two LA swimming pools shimmering in their face? We think we can dip our toes in and touch the bottom, but that's an optical illusion. A trap. We're soon in over our necks. Just listen to what Joseba Sarrionandia has to say about it: "As by swimming I cannot reach / the black islands of your eyes / I scorch my poems / in their whites."
**4/** The explosiveness of them. Radioactive. Hiroshima style eyes. Storm-stricken lightening rods. The ovule just rammed by the blockhead sperm. The shuddering strength of conception. Those that have an explosive look in their eyes are bound to be explosive as well. Van Gogh would dip his brush into these wells of colour if he had them at hand, and later paint sunflowers. You're better off not arguing with the owner of these eyes that look like Jupiter's satellites either. They seem to say: "I'm here, this is what I am, I don't hide my faults, I have no need to hide my virtues."
More than one doubt springs up: where is the pilot of the plane that dropped the bomb on these Hiroshima style eyes? What colour eyes did that pilot have? And above all: did they close at least one of those eyes, in order to get at better aim at what they were firing at?

testua / by: F. Javier Echavarren Lezaun
Javier I. Echavarren Otin

www.iris-truth.com

# Erreflexu Anitzeko Iridiologia Multiple Reflex Iridiology



1

-GIZONA. 43 URTE. 43 YEARS. MALE.

Genotipo Iridiano Morbosoa eta zirkulazio txarrekoa. Artikulazioetan eragiten dio batez ere. Gerri aldean mina eta beso eta hankek lo hartzen diote sarritan. Artritis edo artrosia izateko joera. Gaizki sendatutako katarroak pairatu ditu eta birikan orban bat utzi diote. Haurtzaroan otitis-a izan du. Aipatutako Genotipo Morboso eta zirkulazio txarrarekin, eta elikadura apropos eta ohitura osasuntsu batzuen ezean, bataz besteko altu batean artrosia adin goiztiar batean pairatzeko arriskua du. .

Morbose and Poor Circulation Iridian Genotype. It affects especially his articulations. He is having lumbar pains. His upper and lower limbs go to sleep. He has tendency to suffer from arthritis. He has had some colds from which he hasn't recovered well and so he has a stain in his lung. He had otitis when he was a child. If you have Morbose and Poor Circulation Genotype affecting your articulations and bones and if you don't have an appropriate nutrition and a healthy way of living, most of the times you are about to suffer from arthritis at an early age.



2

-EMAKUMEA. 60 URTE. 60 YEARS. FEMALE.

Bereganatutako gorpuzkera nerbiosoa. Istripu bat izan zuen aspaldian eta hanketan eragin zion bereziki. Hezurretan odol zirkulazio txarra izanik, istripuaren eragina latzagoa izan zen eta gainera ebaketa gelan birus bat hartu zuen. Horren ondorioz, hezurretako mina pairatzen du une oro.

Sabel puztua, odol zirkulazio txarrak eragindako nerbio alterazioengatik.

Arrazoi genetikoak direla eta min arina izaten du ezker begian.

Nervous physical constitution. She had a car accident some time ago and this affected her lower limbs. As she suffers from poor circulation in her bones, the trauma was bigger. Besides, she got a virus in an operating room. As a consequence, her bones ache frequently.

She has intestine inflammation due to nervous disruption associated with poor circulation.

She often goes through pain in her left eye because of a genetic weakness.



3

-EMAKUMEA. 23 URTE. 23 YEARS. FEMALE.

Bere joera genetikoak Sarta zeinu Iridiano borobilaren deribazioaren eraginez pairatutako alterazioak azaltzen dizkigu.

Bere gantz ehunetan alterazio bat duela argitzen digu eta zahartzaroan kolesterola izateko joera duela. Gainera Sarta zeinu borobilaren asoziazioak eta oxigenazio txarra biriken inguruko zonalde topografikoaren azalaren, errepikapen ugariko katarroak sortzen dizkio. Bizkar hezur ahula du. Gerri aldean nabarmenagoa da ahultasuna eta, min gehiago izaten du bertan..

Her genetic tendency reveals she has disruptions coming from the Circle of beads Iridian sign. It also lets us know she has disruption in the adipose tissue with a tendency to suffer from cholesterol when she gets old.

Besides, the relationship between the circle Sarta sign and gaps and bad perspiration in the topographic area of the lung causes her constant colds.

Her backbone is weak, especially in her lumbar area where she has severe pain.



4

-EMAKUMEA. 39 URTE. 39 YEARS. WOMAN.

Artropatiak orno zerbikaletan Mancha eta Laguna zeinuak adierazten dutenez.

Arazoak arnas sisteman bronkio eta biriketan Canal eta Laguna irekia zeinuetan ikus daitekeenez.

Tripako mina eta zirkulazio txarra Cuña zeinuak adierazten duenez. Hesteetan ere ahulezia Laguna zeinuak proiektatzen denez. Hanketan makaltasuna. Laguna zeinuak, normalki, oinarri genetikoa izaten dute. Hauek, bizitzako lehendabiziko hilabeteetan azaltzen dira eta pertsonaren ahulezia nabarmenenak adierazten dizkigute.

Cervical arthropathy which becomes evident by the Mancha and Lacuna signs. She suffers from pain in the respiratory tract, especially in the bronquial tube and the lungs, due to the Canal and Laguna signs.

She has heartburn because of the Cuña and Poor Circulation signs; intestinal atony caused by the Lacuna sign and weakness in her lower limbs.

The Lacuna signs have a genetic origin and show in the first months of life. They reveal which parts of the body are the weakest.

testua / by: odlok

# LUBEaren azken bidaia
# The LUBE's last ride
# (1958)

Argia eta eskubi ispilua izan dira hausten lehenak. Ziurrenik eskulekua ere okertuko zen. Gurpila oraindik bueltaka dagoela entzuten dudanez, katea aterako zen fijo. Dozena bat radio ere txikituta, ziur, eta gasolina depositoa mailatuta... baina Lube bat da. Beste edozein motorra burni meta egina legoke halako muturrekoa hartu ostean. Lubea ez. Ez da igualik munduan. Alemanen NSU motorren diseinua baina Bizkaian egina. Kurbako harri solteengatik izan ez balitz...




The light and the right wing mirror were the first to go. I'm sure the saddle was bent out of shape as well. I can hear the wheel still spinning so the chain must have come off as well. No doubt a dozen spokes or so have been cut to ribbons and the petrol tank has been all busted up… but it's a Lube. Any other bike would be mangled mass of steel after a crash like that. But not the Lube. There's nothing to match it in the world. German NSU motor design but Biscayan-built. If it hadn't been for those loose chippings on the bend…. I really showed them tearing down Urkiola… "Halt! Gardia Civil!" …Them sitting there on their Bultaco crap telling me and my Lube to stop? Stop my royal fuckin' arse! I opened up the throttle and the only thing they've seen all the way down has been the back of my Lube. If it hadn't been for those loose chippings on the bend….

When I felt my leg melting into the road as I slid along, I knew I had taken a bad smack. When I went off the road and ran into the tree, the muff snapped off. I can't feel my arms or legs. It feels like I'm choking to death. I heard the Guardia Civil men's voices getting closer. But they're not gonna get me. I can see the white light at the end of the dark tunnel…



Errepaso ederra eman diet Urkiolan behera... <<Alto a la Guardia Civil!>> Bultaco kaskar horiekin nire Lubeari alto?...Alto a tu puta madre! Azeleragailua topera estutu eta Lubearen ipurdia besterik ez dute ikusi jaitsiera osoan. Kurbako harri solteengatik izan ez balitz...

Labaindu eta izterra asfaltuaren kontra erretzen ari zela sentitu dudanean konturatu naiz ederra hartu behar nuela. Errepidetik atera eta zuhaitz honen kontra jo dudanean soltatu dut eskulekua. Ez ditut hankak ez besoak sentitzen. Eztarriko putzuak gainezka egin behar duela dirudi. Goardia zibilen ahotsak gerturatzen entzuten ditut. Baina ez naute harrapatuko. Tunel beltzaren muturrean argia ikusten hasi naiz...

# Wu-Tang clan



## Microphones, swords and a wad of cash

Old Dirty Bastarden desagerpenarekin –pasadan azaroan hil zen- puntako hip hop kolektibo baten berezko partaidetzaren amaiera heldu zen. Euren ibilbidearen laburpen hau merezi dute. Kalera atera berri da taldearen zuzeneko emanaldien diskoa, epitafio gisa, eta kontuz, talde honekin engantxaturik geratu zintezke eta: ¨ *"Wu-Tang ain't nothing to fuck with"*.

**Once upon a time…**

Let's begin with the mythological origins of the band. In the sixth century a. D., according to an old legend, a Buddhist monk named Tamo traveled far to join the Shaolin temple. The director of this institution, Fang Chang, considered him a suspicious man and so did not let him in. Tamo retreated to a nearby cave to meditate and, as time went by, he attained such a concentration he even pierced the wall.

Confident and strong as he was, Tamo finally got in. In his first contact with the temple, he was astonished by the low learning level of the students. He made the decision to take care of the instruction of the monks himself. He created a system based on the imitation of the 18 animals of the Indochinese iconography. Eventually, this technique improved. Many types of weapons were introduced; among these, the Wu-Tang sword, the most fatal of them all. In order to control it, the student had to undergo a test of 36 stages related to the 36 steps of the apprenticeship. When a student went from one stage to the next, he was given a gold tooth in exchange for a real one (in the end, platinum and diamonds were added to dazzle the enemy.)

The confrontation between the two Shaolin features gradually arose: those who wanted to show their art with an intention of defense and the ones who did not reject active violence. These were The Wu-Tang Clan.

## Mikroak, ezpatak eta billete sortak

Old Dirty Bastarden desagerpenarekin –pasadan azaroan hil zen- puntako hip hop kolektibo baten berezko partaidetzaren amaiera heldu zen. Euren ibilbidearen laburpen hau merezi dute. Kalera atera berri da taldearen zuzeneko emanaldien diskoa, epitafio gisa, eta kontuz, talde honekin engantxaturik geratu zintezke eta: ¨ *"Wu-Tang ain't nothing to fuck with"*.

**Bazen behin…**

